



Metalaren Merkataritzarako Bizkaiko Hitzarmen Kolektiboa

Bilbo

Barrainkua 13
Tel.: 94 403 77 00
Fax: 94 403 77 11

Basauri

Antonio Fernández z/g
Tel.: 94 405 58 88
Fax: 94 405 58 68

Barakaldo

Gernikako Arbola 35-38
Tel.: 94 418 02 96
Fax: 94 418 93 17

Areeta

Areetako etorbidea 2
Tel.: 94 602 04 50
Fax: 94 602 04 20

Durango

Askatasun Etorbidea 5
Tel.: 94 621 76 80
Fax: 94 621 76 81

2009-2019

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ela.eus  

ELAK SINATU DU METAL MERKATARITZAREN BIZKAIKO HITZARMENA

ELAK –sektorean gehiengo osoa izanik– eta CECOBik sinatu dugu, 2018ko ekainaren 1a, Metal Merkataritzaren Bizkaiko Hitzarmena. Horren bidez lan-erreformatik blindaturik geratu gara, eta beste hainbat hobekuntza ere eskuratu dugu. Hona hemen nagusiak:

Indarraldia: 2009 urtarrila - 2019 abendua.

Aurrera-eragina: mugagabea.

Inaplikazioa: blindaje-klausula, Orpicce-ren aurrean.

Soldata-igoerak:

2009-2016 aldirako:

- 2009-2014: %0,10 urte bakoitzeko.
- 2015: 0,50%.
- 2016: 1%.

2017: 2,20%.

2018: 3,70%.

2019: %1,75, KPIren bermearekin, indize hori gehiago handituko balitz.

Antzintasuna:

Laurtekoak mantenduko dira, baina kalkulurako 2014ko taulak hartuko dira kontuan.

Atzerakinak:

Langile guztiak jasoko dituzte atzerakinak, aurreko urteei dagozkien igoerak, hurrengo kasu hauetan izan ezik:

- Enpresak %25 behintzat murriztu badu plantilla;
- Enpresak 2011-2015 aldiko 2 urtetan galerak izan baditu;
- Enpresaren salmenten bidezko diru-sarrerak %20 edo gehiago gutxitu badira.

Zure enpresa egoera horietako batean egonez gero, langileek fidelizazio-ordainsari bat jasoko dute, 2008ko soldataren ordainsari bat eta erdi adinakoa, baldin eta langilea enpresan altan badago 2018ko abenduaren 31n.

Gainerako edukiak: aurreko hitzarmenaren artikulua guztiak beren horretan jarraituko dute.

Azpimarratu beharrekoa da sektoreko langileak hitzarmenik gabe zeudela 2009. urteaz geroztik. Arrazoi nagusia CECOB (CEO) patronalaren blokeoa izan da, horrela sektoreko langileentzako eduki onak eragozten saiatu dira. Negoziazioaren koska antzintasuna izan da. Bizkaiko Merkataritzako patronalak kontzeptu hori kentzeko eskatu izan digu uneoro, hitzarmena sinatzeko baldintza gisa.

Hitzarmen hori sinatu izanak erakutsi digu berriro eduki duinak negoziatu daitezkeela, eta negoziazioa beste era batera egin daitekeela.

ELAk oso ondo deritzo hitzarmen berriari, lehenengo eta behin Metal Merkataritzaren Hitzarmena berreskuratu dugulako (2009an iraungita). Izan ere, enpresa gehienek ez zuten egiten ezta konturako igoerak ere; eta beraz langileek izozturik zeuzkaten soldatak 2008tik.

Horrelako hitzarmenak egitea badago, besteak beste, ELAk sektore horretan gehiengo osoa duelako, eta sektoreko ordezkariak lan horretan buru-belarri jardun dutelako.

ELaren izenean eskerrak ematen dizkiegu langile guztiei sindikatuan uste ona izateagatik, eta bultzatzen zaituztegu gurekin batera aurrera joatera. Ea ordezkari gehiago lortzen dugun, eta sektorean gehiengo izaten jarraitzen dugun.

AFILIATU ELAN!

GURE WEB ORRIAN ERE EGIN DEZAKEZU:

www.ela.eus



METALAREN MERKATARITZARAKO BIZKAIKO HITZARMEN KOLEKTIBOA

I. KAPITULUA

EREMUA, INDARRALDIA, AMAIERA IRAGARTZEA ETA BERRIKUSTEA

1. artikulua. — *Aplikazio eremua*

A) Hitzarmen honetako akordioek Bizkaiko Metalarenen Merkataritzako enpresen eta langileen arteko harremanak arautuko dituzte, enpresa bakoitzak Bizkaian dituen lantoki guztietan, sukurtsalak, ordezkariak eta bulegoak barne.

B) Erabaki hauek enpresan lan egiten duen langile orori eragingo diote, Administra-zio Kontseilueta eta Goi Zuzendaritzako kideei izan ezik.

C) Hitzarmen Kolektibo sindikal honek Metalaren Merkataritzaren Sektoreko enpre-sa guztietan eragiten du, bai Industria Merkataritzako honako jardueretako elkar-teetan: txatarra, burdinen biltegiak, altzairu finen biltegiak, hodian eta osagarrien biltegiak, bur-dineria-biltegiak, salgai eta aparailu profesionalen merkataria, makina-erremintak, ma-kineria industrial eta osagarriak, nekazaritza-makineria eta osagarriak, bulegoko maki-nen eta altzarien inportatzaileak eta merkataria, saneamenduko materialak, burdinez besteko metalen eta makineria elektrikoaren biltegiak.

D) Bai merkataritza publikoko honako jarduera-elkar-teetan: Biltegiak-Burindegieta-ko txikizkako merkataria, hustuketa tailerra duten aitzogintzako merkataria, arma-den-dak eta kirol artikuluen saltokiak, erloju-inportatzaile eta saltzaileak, automobil, kamioi eta bizikleta-inportatzaileak, automobili, kamioi eta bizikleta-inportatzaileak, automozio-ko ordezkariak, bitxigintza, zilargintza, bisuteria eta antzekoak, informatika-materialaren salmenta, telefono mugikorren salmenta, material elektriko eta etxetresna elektrikoak, eraikuntza makineriaren salmenta eta alokairua.

2. artikulua. — *Eremua, indarraldia, amaiera iragartzea eta berrikustea*

Hitzarmen kolektibo hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik 2019ko abenduaren 31ra arte jarriko da indarrean eta hedatuko ditu bere ondorioak eta berariaz xedatutakoan baino ez ditu izango atzeraeraginezko ondoreak.

Bi alderdiek adostu dutenez, hitzarmenaren amaiera 2019. urteko urriaren 1ean emango da iragarritzat eta bi alderdiek konpromisoa hartu dute hurrengo Hitzarmenaren gaineko hausnarketak —aurreproiektua aurkezten den egunetik zenbatzen hasita— hamabost eguneko epean hasteko, bai langileen ordezkarien aldetik, bai enpresaren ordezkarien aldetik.

2. bis artikulua. — *Behin-behineko indarraldia (Ultra-jarduerako 36 hilabete (2019-10-1/2022-09-30), goragoko eremuko hitzarmen kolektiborik ba- lego)*

Hitzarmen kolektiboaren indarraldiari dagokionez eta kontuan hartuz Langileen Es-tatutuaren 86.1 artikulua xedatzen duenez alde negoziatzaileei dagokiela hitzarmen-iraupena ezartzea eta 86.3 artikulua xedatzen duenez, behin salatuta eta hitzartutako iraupena amaituta, hitzarmen kolektiboaren indarraldia hitzarmenean bertan ezarritako-aren arabera gertatuko dela, ondorio horietarako bakarrik goragoko eremua izango da probintzia edo autonomiako beste hitzarmen kolektibo bat egotea, estatutu izaerakoa, indarraldia amaitzen zaion hitzarmenaren eremu funtzional berekoa.

Aurreko 36 hilabeteak igarota goragoko eremurik ez badago, eta alde negoziatzaileek besterik adostu ezean, hitzarmen kolektiboak indarrean jarraituko du, aldeek beste hitzarmen kolektibo bat sinatu arte edo arestiko paragrafoan xedatutakoaren arabera goragoko eremukotzat jo daitekeen beste hitzarmen kolektibo bat egon arte.

II. KAPITULUA

ERREGIMEN EKONOMIKOA

Erregimen ekonomiko honetan xedatutakoaren interpretazioari edo aplikazioari buruzko zalantza egonez gero, edozein erreklamazio judizialen aurretik, kontsulta egin beharko zaio lehenago derrigorrez batzorde mistoari, zeinak 15 eguneko epea izango baitu erantzuteko.

3. artikulua. — Aurreko hitzarmen kolektiboko lan-baldintzak indarrean ez zegoen bitartean aldatzeari buruz

Alde negoziatzaileek artikulua sinatzean duten helburu nagusia Bizkaiko metalaren merkataritzaren arloko hitzarmen kolektiboaren indarraldia berreskuratzea da, zeinaren estatutuko indarraldia 2013ko urriaren 1ean amaitu baitzen, eta zeinaren faltak arloko langileen eta enpresen kaltetan baitihardu, inguruabar hauek kontuan hartuz:

- a) 2008tik ezinezkoa izan dela akordioa lortzea eta 4 urtez baino gehiagoz ez dela estatutuaren bidez indarrean egondako hitzarmen kolektiborik.
- b) Hitzarmenak eragindako errealitateak, krisi ekonomikoak haietan izan duen eraginaren arabera. Horrek, era berean, zenbait errealitate ekarri ditu aurreko hitzarmen kolektiboan itundutako baldintzen aplikazioari dagokionez, hura ezin baitzaie aplikatu bere indarraldia amaitu ondoren gertatutako kontratazioei, zeinek ez baitute haren babesik, eta aurreko kontratazioei hitzarmenean ezarritakoa ez ezartzeari dagozkion izapideak bete beharrik gabe baldintzak alda dakizkiekeen neurrian.
- c) Alde negoziatzaileek arloko hitzarmen kolektibo hau jotzen dute lan-metodori egokientzat lan-harremanen sistemak ondo funtzionatzeko eta haren baldintzen aplikazioa homogeneizatzeko, hori enpresen bideragarritasun ekonomikoaren ztat sinatzen den unetik oztopo izan gabe, kontrakoa baizik, ezta enpleguari eusteko edo hura berreskuratzeke egoera ekonomikoak ahalbidetzen badu ere.

Horregatik guztiagatik, hitzarmen kolektibo hau sinatzea kaltetu gabe, aurreko hitzarmen kolektiboaren lan-baldintzen aldaketak errespetatuko dira euren puntu guztietan, 2013ko irailaren 30az geroztik (data horretan amaitu zen aurreko hitzarmen kolektiboaren indarraldia) eta hitzarmen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu arte, enpresetan aplikatu direnak, akordioagatik edo langileek onartutako enpresaburuaren erabakia-gatik, nahiz Langileen Estatutuaren 41. artikulua aplikazioaren bidez.

Ondorio horietarako eta esandako epean (2013ko urriaren 1 / Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea) egoki eta arrazoituzat joko da lan-baldintza horiek hitzarmen kolektibo honetan xedatutakoaren arabera aplikatzea. Hura argitaratzen denetik baldintza horien aplikazioak egokia eta arrazoitua izaten jarraitzeko, ordea, ez ezartzeko prozesua izapidetu beharko da, hitzarmenean (30. artikulua) eta hurrengo paragrafoetan xedatutakoaren arabera.

Argitu behar da aurreko hitzarmen kolektiboarekiko aldaketa soldataren zenbatekoari buruzkoa izan balitz ez dela egokia izango hurrengo artikuluan xedatutako hitzarmenaren atzeraeraginezko aplikazioa urte bakoitzeko urtarrilaren 1era, ezta, kasuan kasu, 4. artikuluko ordainsari ez-konsolidagarria ordaintzea ere.

Prozedura horri ekiteko 75 eguneko epea izango dute Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik. Epe horretan eta hasitako prozesua behin betiko ebatzi arte lan-baldintza berberak aplikatzen jarraituko da.

Prozesua ez ezartzeko akordio batekin edo hitzarmen kolektiboaren 30. artikulua arabera emanda hala xedatzen duen arbitraje-laudo batekin amaitzen bada, bata edo bestea aplikatuko da bere terminoetan.

Hala ez balitz, enpresak hitzarmen kolektiboa aplikatu beharko du, ondorioak prozesua amaitzen den egunetik izanda; nolana ere, hark eragindako betebeharrak oro xurgatu eta konpentsa dezake ezarrita dagoen beste edozein baldintzarekin, baldintza ekonomi-

ko hobeak, banakoak zein kolektiboak, izan ezik, haietan ez xurgatzea berariaz itundu bada.

Errespetu-klausula hau estuki lotuta dago hitzarmenean negoziatutako erregimen ekonomikoa, osotasun organiko eta banaezina osatzen dute biek eta 2008tik negoziazioa blokeatuta zeukan estatutu izaerako hitzarmen kolektibo bat egotea ahalbidetzen dute. Hortaz, erregimen ekonomikoa osorik aplikatzen bada baino ez ditu ondorioak izango.

Hala ez balitz eta edozein bitartekoren bidez eta/edo edozein zioengatik hura erabat nahiz partzialki deuseztatuko balitz, erregimen hori osorik geratuko da eraginik gabe eta ez du inolaz ere ondoriorik hedatuko. Halaber, ez da posible izango haren zati bat erreklamatzeko beste baten deuseztasunean edo deuseztagarritasunean oinarrituta. Hori dena alde negoziatzaileek berri bat osorik negoziatzeko duten betebeharra kaltetu gabe.

4. artikulua

1. SOLDATEN IGOERA

Taulen araberako kalifikazio-soldata ezartzen da (I. eranskina), eta hori honako igoe-rak aplikatzearen emaitza da:

2009-2017 aldia

- 2009. urtea: %0,10.
- 2010. urtea: %0,10.
- 2011. urtea: %0,10.
- 2012. urtea: %0,10.
- 2013. urtea: %0,10.
- 2014. urtea: %0,10.
- 2015. urtea: %0,50.
- 2016. urtea: %1,00.
- 2017. urtea: %2,20.

Ekitaldi guztietan ehunekoa aurreko urteko taularen gainean aplikatzen da eta urte bakoitzeko urtarrilaren 1era atzera eramango da.

2018-2019 aldia

- 2018. urtea: %3,70eko igoera bat hitzartzen da, 2017ko taularen gainean aplikatua, ondorioak 2018ko urtarrilaren 1etik izanik.
- 2019. urtea: %1,75eko igoera bat hitzartzen da, 2018ko taularen gainean aplikatua, ondorioak 2019ko urtarrilaren 1etik izanik, 2018ko KPIaren bermearekin bera handiagoa balitz.

Arestikoa hala izanik ere, 2017ko abenduaren 31 arteko soldata igoeren atzeraeraginezko aplikaziotik salbuetsita egongo dira 2008ko abenduaren 31n zegoen plantilla 2016ko abenduaren 31n zegoenarekin alderatuta krisiaren ondorioz gutxienez %25 langile gutxiago duten enpresak, baita, 2011-2015eko ekitaldietan, gutxienez, urte 2z galera izan dituzten enpresak ere edo, ekitaldi horietan galera ekonomikorik eduki gabe, 2008-2016 aldian salmenten ondoriozko sarreretan %20ko edo gehiagoko murrizketak izan dituztenak.

Alde sinatzaileek aurrekoa hitzartu dute deskribatutako egoerek itundutako beste arauketa bat berez justifikatzen dutelakoan, nolana ere objektiboki justifikatutako aldea izanik eta proportziozko aplikazioa duen neurri bat, denboran eta edukian aplikazio mugatua baitauka. Hori dena, arloko hitzarmen kolektiboaren indarraldia enpresen oneratzeari eta enpleguari eragin gabe, beharrezkoa izanik xede hori lortzeko, arestian azaldutako egoerak kontuan izanda.

Nolana ere, arestian definitutako egoera objektiboren bat bete eta 2009-2017 aldian langileei 2008ari dagozkion soldata-tauletan (2008ko otsailaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala) ezarritakoa baino ordainsari handiagoa ordaindu ez duten enpresek, egun en-

presan dauden langileei aparteko fidelizazio ordainsari ez-kontsolidagarri bana ordainduko diete, hil eta erdiko zenbatekoagatik 2008ko soldata-taularen gainean, ordainketa bakarrean, 2019ko urtarrileko nominan, langileak 2009ko urtarrilaren 1etik zerbitzuak etengabe eman baditu eta 2018ko abenduaren 31n ematen jarraitzen badu.

2009-2017 aldian aurrerakinak edo konturako kopuruak ordaintzearen ondorioz arestiko paragrafoan aipatutako enpresek euren langileei 2008ko soldata-tauletan ezarritakoa baino ordainsari handiagoa ordaindu baliote, baina jasotako aurrerakin edo kopuru horiek arestian aipatu hil eta erdiko zenbatekora iritsi gabe, enpresan egun dauden langileei kopuru horretarainoko aldea ordainduko diete, 2019ko urtarrileko nominan, 2009ko urtarrilaren 1etik zerbitzuak etengabe eman badituzte eta 2018ko abenduaren 31n ematen jarraitzen badute.

Zerbitzuak 2009ko urtarrilaren 1aren ondorengo data batetik 2018ko abenduaren 31 arte etengabe eman badira, arestiko bi paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da, zerbitzuak emandako denboraren proportzioan.

Edozein kasutan, 2009ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 arte doan aldian enpresek 2008an indarrean zegoen azken soldata-taula aldi baterako ez ezartzea erabaki balute, edo 2013ko irailaren 30aren ondoren taula horretan ezarritako soldata kopurua aldi baterako murriztu balute, aldi horiek proportzioan kenduko dira ordainsari bakar ez-kontsolidagarria kalkulatzeko ezarritako zenbatekotik, langileek ondorio horietarako zerbitzurik eman ez balute bezala.

2. GUTXIENEO BERMEA 2018-2019RAKO

Hitzarmen honen eraginpeko langile guztiei, haien lanbide-kategoria edozein dela ere, adierazitako indarreko urte bakoitzean haien lanbide-kategoriari dagozkien taulen arteko alde aritmetikoa adinako gutxieneko igoera bermatzen zaie 2018 eta 2019rako, Hitzarmen honetako I. eranskineko Gutxieneko Soldata Bermea izenburuko zutabeetan jasotzen denaren arabera, eta inola ere, ezin izango da konpentsatu eta xurgatzeko gaitasuna gauzatu bermatutako kopuru horietan murrizketa eragiten badu, kasu hauetan salbu:

- a) Konturako aurrerakinei buruzko klausularekin bat etorriz (4.3 artikulua) berme horrek ez die eragingo enpresei, 2009-2017 aldian, haien langileek hitzarmenaren aplikazioak dakartzanak baino ordainsari handiagoak jaso badituzte, eta kasu horretan enpresek klausula horretan xedatutakoa aplikatu eta berme betebeharra aldi horretan ordaindutako soldatarik handienarekin konpentsatu ahalko dute.
- b) Langilearen benetako soldata hitzarmen kolektibotik datorrena baino %10 handiagoa den kasuetan; kasu horretan artikulua honek ere ez die eragingo.

3. SOBERA JASOTAKO KONTURAKO AUERRERAKINAK EZ ITZULTZEKO ETA XURGATZEKO ETA KONPENTSATZEKO KLAUSULA

Enpresek emandako aurrerakinen edo konturako kopuruen ondorioz hitzarmen kolektiboak argitaratu arte hilero ordaindu eta langileak jasotako ordainsariak haren aplikazioak dakartzanak baino handiagoak izan balira, langileek ez dute data horretara arte jasotako soberakina itzuli beharko.

Hori hala izanik ere, jasotako soberakin hori osorik xurgatu ahalko da, bai data hurrezkero soldatak taulara egokitzeke, bai haren indarraldi osoan hark eragindako edozein betebeharr ekonomiko konpentsatu edo hari aurre egiteko. Halaber, aukera dago soldata-taula ez ezartzeko langilearen ordainsaria indarreko taulako zenbatekora iritsiko ez balitz baina aurreko urteetan emandako aurrerakinen edo konturako kopuruen ondorioz hilero hitzartu baino kopuru handiagoa jaso balu.

Azken kasu horretan, taula ez ezartzeko epea aldi baterakoa litzateke, langileak emandako aurrerakinen edo konturako kopuruen ondorioz sobera jasotako kopurua kontsumitu arte, halako moldez non behin agortuta dagokion soldata-taula aplikatuko baita. Kasu horretan, soberakina aurrerakinen edo konturako kopuruen ondorioz hilero jasotako ordainsarien eta hitzarmena aplikatuta zegozkiokeen arteko aldea izango da, hitzarmena aplikatuta dagokion kopuru gisa 2008ko soldata-taularen arabera kalkulaturako antzintasuna sartuz beti, hitzarmen kolektiboaren 3. artikuluan xedatutakoa gorabehera.

Argitzen da 2009ko urtarrilaren 1az geroztik kontratatutako langileekin hitzartutako ordainsariaren eta hitzarmen kolektiboa aplikatuta legokiekeenaren arteko aldea ere aurrerakin edo konturako kopuru gisa zenbatuko dela.

5. artikulua. — Kontuan hartzen diren kontzeptuak

orain arte, enpresako langileak jaso dituen ordainsariak honako kontzeptuek osatutakoak izan dira:

A)

- I. Kalifikazio Soldata.
- II. Primak, baldintzak edo jarduera-plusak.
- III. Oporren ordainketa.
- IV. Aparteko haborokinak.
- V. Langileen baldintza bereziengatik ordainketak (Antzinasuna, txandak, etab.).
- VI. Aparteko orduak.

B)

- I. Urruntasun-plusa.
Dietak, bidaiak eta kilometroak.

6. artikulua. — Primak, plusak eta jardueragatiko komisioak

Primak, plusak eta jardueragatiko komisioak ordaintzeko gaur arte sektoreko enpresa bakoitzean ezarritako metodoa aplikatuko da.

7. artikulua. — Oporren ordainketa

Oporrak ordaintzeko honako hau izango da kontuan:

- I. Kalifikazio Soldata.
- II. Antzinasuna.
- III. Oporrak hartu aurreko hilabeteetako primen edo plusen batez bestekoa, salmenten edo erosketen arabera, komisioen edo beste edozein kontraprestazioren batez bestekoa salbu.

8. artikulua. — Aparteko haborokinak

Hitzarmen honen eraginpeko enpresek aparteko lau haborokin ordainduko dizkiete langileei, horietako bakoitza hilabetezari baten kopurua izango dute, eta martxoaren 15ean, ekainaren 15ean, irailaren 15ean eta abenduaren 15ean ordainduko dira.

Aparteko haborokinen xedapen komunak

1. Aparteko ordainsariak ordaintzeko, 7. artikuluan oporren ordainketari buruz ezarritako baldintzak hartuko dira kontuan.
2. Enpresan urtebeteko antzinasuna ez duten langile guztiek urte naturalean lan egindako denboraren zati proportzionala jasotzeko eskubidea izango dute. Langileek lortutako eskubideak gordeko dira, aparteko haborokinen zenbatekoari eta luzapenari dagokienez.

9. artikulua. — Enpresan egindako denboragatiko plusa

Langile guztiek lan egindako denboragatiko plusa izango dute. Plus hori honako baldintza hauen arabera izango da:

- A) Betetako laurteko bakoitzeko sorraraziko da.
- B) Langileak gehienez zortzi laurteko metatu ditzake.
- C) Langileak duen lanbide-kategoriako oinarritzko soldataren gaineko %5ean ezarri da laurtekoaren zenbatekoa. Zenbateko hau 2014ko soldata-taulen arabera kalkulatuta dago (ikusitako taula).

- D) Izan duten azken lanbide-kategoriaren arabera, langileek enpresan emandako denboragatik plusgatik metatuta dauzkaten laurteko guztiak jasoko dituzte.
- E) Langilea Enpresan sartu zen egunetik hasiko da zenbatzen antzintasuna.

10. artikulua. — Aparteko orduak

Aparteko orduak dira legezko ohiko lanaldia gaintzen dutenak eta premia larriko kasuetan baino ezin izango dira egin, sindikatuen ordezkarietarako aldez aurretik jakinarazita, horrelakorik baldin badago. Lan-egunetakoak %75eko gainkarguarekin ordainduko dira, eta jai-egunetakoak %200ekoarekin, eta edozein kasutan legez ezarritako mugak errespetatuko dira.

Enpresaburuak hala erabakitzen badu, aparteko orduak atsedendiekin ordaindu edo konpentsatuko dira, Langileen Estatutuan eta aplikatuko beharreko gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

11. artikulua. — Garraio plusa

Bi (2) kilometrorako baino urrutiago bizi diren langileak gertueneko garraio publiko merkean 4 bidaiak balio duten kopuru osoa ordainduko die enpresak. Edonola ere, garraio gastua egin izanaren frogagiria eskatu ahal izango dio Enpresak langileari.

12. artikulua. — Dietak eta kilometrajea

Saltzaile bidaiarietarako, gidarietarako eta enpresak ohiko lantokitik at zerbitzuren bat betetze-ko eskatzen diren langile guztiak dute egindako gastuak kobartzeko eskubidea, betiere ordainagiriak erakutsiz gero.

Noizean behin bidaiatzen duten langileek dietak jasoko dituzte; honako hauek, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitalpen-datatik aurrera, hain zuzen:

2018. urtea

- Egun osoa: 58,75 euro.
- Egun berean:
- Gosaria: 4,31 euro.
- Bazkaria: 23,95 euro.
- Afaria: 13,37 euro.
- Lo egitea: 17,29 euro.

Langileak enpresarentzako zerbitzuan bere jabetzako ibilgailua erabiltzen badu, argitalpen-datatik aurrera, 0,287 euro jasoko du kilometroko 2018. urtean.

2019. urtean zenbateko hauek hitzarmenako 4. artikuluan ezarritakoaren arabera eguneratuko dira.

III. KAPITULUA

LANALDIA

13. artikulua. — Lanaldia

Lehenengoa: Urtean 1.758 orduko lanaldia ezartzen da hitzarmena indarrean dagoen denbora guztirako. Ordu horiek urteko benetako orduak dira, eta astean ezin izango da horietako 40 baino gehiago egin.

Hitzartutako urteko lanaldian langileak 8 ordu ditu hartzeko. Urteko egutegia egitean, eguneko lanaldia murriztu dezake, edo norberaren aukerako egun bat hartu. Egun hori ezin dakieke oporrei gehitu, eta ezin izango du plantillaren %10ak baino gehiagok egun berean hartu, %10 hori bat baino gehiago baldin badira.

Hitzartutako 1.758 orduko lanaldia baino urteko lanaldi txikiagoek dituzten langileek eskuratutako eskubideak errespetatuko dira, legeak hala aginduta urteko txikiagoa sortzen den kasuetan izan ezik.

Urtean lau hilabetetan langileek ez dute lan egingo larunbatetan, eta hori lan-egutegian zehaztu beharko da. Egutegirik zehazten ez bada, epe hori ekaina eta urria bitartekoa izango da.

Enpresako lan-egutegia egingo du urtero enpresak urtarrilaren 31 baino lehen, langileen ordezkari jakinarazi ondoren, eta lantoki bakoitzeko leku ikusgarri batean ale bana jarri beharko da.

Lan-egutegian honako hauek azalduko dira: lan-ordutegia, benetako lanegunak, urteko lanorduen banaketa, atsedenaldiak, jaiegunak (itundutako urteko lanaldiaren araberak) eta eguneroko ordutegiak.

Egun bakoitzeko 4 orduko edo gutxiagoko lanaldiak ezin izango dira zatitu.

Bigarrena: Arestiko zenbakian araututako lanaldia gorabehera, enpresek lanaldiaren aplikazio irregularra egiteko %5eko orduko poltsa bat izango dute urtean; horren bidez, lan-egutegian ezarritako lanaldia aldatu ahal izango dute baldin eta horren beharra badute.

Langileen Estatutuaren 34.6 artikuluan eta hitzarmen kolektibo honen 13. artikuluan ezarritakoa betez urteko lan-egutegia urtero egiten duten enpresek izan ahal izango dute ordu-poltsa hori, eta lantoki guztietan haren ale bat jarri beharko dute ageriko leku batean.

Beraz, banaketa irregularra honela aplikatu ahal izango da:

- a) Lan-egutegian eguneko edo asteko lanaldi moduan hasieran erabakita zegoen ordu kopurua baino gutxiago eginez, eta berreskuratu behar diren orduak noiz egin behar diren zehaztuz.
- b) Lan-egutegian eguneko edo asteko lanaldi moduan zehaztuta dagoen ordu-kopurua baino ordu gehiago eta lan-egutegitik at geratzen diren egunetan lan egi-
tea, betiere eguneko eta asteko gehieneko lanaldia errespetatuz, hurrenez hurren 9 eta 45 ordukoa, nahiz eta urtean bi inbentario orokorretan aurreko muga horiek, hurrenez hurren, 10 eta 46 ordukoak izan ahalko diren. Muga horiek proportzionalki aplikatuko zaizkio lanaldiari.
- c) Era berean, enpresak honako kasu hauetan aplikatuko du ordu-poltsa hori:
 - Langileen egutegiko lanegunetan.
 - Lanaldia luzatzen bada, ohiko lanaldia eten gabe egingo da.

Ordu horiek inoiz ere ezingo dira konpentsatu ekonomikoki, eta ohiko ordutzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Baina b) atalean azaldutako kasuan, eragindako enpresek eta langileek adostu egin beharko dute zenbat ordu, noiz eta nola konpentsatu behar diren; hala ere, ahal den neurrian, ordu horiek atsedeen-egun osoetan hartuko dira. Akordiorik lortzen ez bada, ordu horiek erabili eta hurrengo 14 asteetan zehar konpentsatuko dira, langileak urteko gehieneko lanaldia inoiz ere gainditu gabe. Enpresak eta langileak konpentsazioa hurrengo 14 asteak igaro ondoren gauzatzea hitzartu ahal izango dute, betiere hitzarmeneko urteko gehieneko lanaldia errespetatuta.

Enpresek artikulua honetan araututako ordu baliagarri horiek erabiltzea erabakitzen badute, idatziz jakinarazi beharko diete eragindakoei eta langileen ordezkariari, gutxienez neurria aplikatu baino zazpi egun lehenago.

Arauketa honek ez ditu kaltetzen egun indarrean dauden lanaldi irregularren banaketari buruzko hitzarmenak, zeinak puntu guztietan errespetatuko baitira.

IV. KAPITULUA

OPORRAK

14. artikulua. — Oporrak

A) Langile guztiek ordaindutako oporraldia izango dute urtero. Oporraldia egutegiko 30 eguneko, lehenengo eguna ez da jaieguna edo jai-bezpera izango edo egutegiko hilabete batekoa izango da.

B) Oporrak ekaina eta iraila bitartean hartuko dira, biak barne.

C) Oporrak txandaka hartuko dira, antzinatasunaren irizpidea behin aintzat hartuta. Langileek hartu baino hiru hilabete lehenago ezagutu behar dute opor epea, eta enpresaren eta langilearen edo horrelakorik dagoen enpresetan sindikatuetakoa ordezkarien artean hitzartuko da.

D) Urtean zehar langileak enpresa uzten badu, edo enpresan sartzen bada, oporren zati proportzionala hartzeko eskubidea izango du.

E) Enpresa oporretan itxi egiten bada, langileek lantegia itxita dagoenean hartu beharko dituzte oporrak nahitaez.

F) Lanaldiak zatika hartzen direnean, langileak 26 lanegun hartzeko eskubidea izango du, eta egun horiek lan-egutegiaren arabera igande edo jaiegun ez direnak izango dira.

G) Langileen Estatutuaren 38.3 artikuluko III. paragrafoan xedatutakoaren arabera, manu horren II. paragrafoan adierazitako kontingentziaz besteko arrazoiak direla-eta, oporraldia heltzean langilea aldi baterako ezintasun-egoeran badago eta ezin baditu opor guztiak edo haien zati bat hartu oporrei dagokien urte naturalean, ezintasun-egoera amaitzean hartu ahal izango ditu, oporretarako eskubidea sortu den urtearen amaieratik hemezortzi hilabete baino gehiago igaro ez badira. Hitzarmenak dirauen bitartean manu hori aldatuko balitz legez xedatutakoari lotuko zaio.

V. KAPITULUA BESTE BATZUK

15. artikulua. — *Lizentziak*

Neska-laguna eta mutil-laguna ezkontidearekin parekatzen dira, beti ere bizikidetzaren egiaztagiri ofizialaren bidez egiaztatzen badira.

Langilea, aldez aurretik abisatuta eta justifikatuta, lanera etorri gabe gelditu ahal izango da, lansaria jasotzeko eskubidearekin, honako arrazoi hauetako batengatik eta honako denbora honetarako:

- a) Hogei egun natural, ezkonduz gero.
- b) Hiru egun ezkontidea, seme-alabak eta aita-amak hilez gero, eta bi egun odolki-detasuneko edo kidetasuneko bigarren mailara arteko ahaideak hilez gero. Arrazoi hori dela-eta langileak bidaia egin behar badu, epea lau egunekoa izango da.
- c) Bi egun bigarren mailara arteko odolki-detasuneko edo ezkontzako ahaideen ospitaleratze, gaixotasun larri edo heriotzagatik. Arrazoi hori dela-eta langileak bidaia bat egin behar duenean, epea lau egunekoa izango da.
- d) Egun bat ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik.
- e) Egun bat odoleko edo ezkontzako anai-arreben, gurasoen edo seme-alaben ezkontzagatik. Egun horiek bi egunera arte luzatu ahal izango dira arrazoi horrengatik langileak bidaia egin behar badu.
- f) Betebehar publiko edo pertsonalak egiteko behar adina denbora emango da, baita geroratu ezin diren norberaren gaiei pertsonalki erantzuteko premiagatik ere; bi kasu horietan aldez aurretik justifikatu beharko da.
- g) Bost egun emaztea erditzen bada.
- h) Ikasten ari diren langileei beharrezko baimen guztiak emango zaizkie (behar bezala frogatuta) azterketa egunean azterketak egitera joateagatik, horrek langilearen lan eskubideengan inolako kalterik edo murrizpenik eraginga
- i) Enpresak gidatzeko baimenak lortzeko beharrezko baimen guztiak emango dizkio langileari, lehenengo deialdirako (bi proba osotarako), baimen horiek ordaintzeko beharrik gabe.

16. artikulua. — Eszedentziak

Borondatezko eszedentzia

Gutxieneko urte beteko antzinatasuna duen langileak eskatzen duen borondatezko eszedentzia onartua izateko eskubidea izango du, baina langileak ezin izango du jardueraren berdinean aritu, ez bere kontura, ez besteren kontura. Eszedentzia hori gehienez bost urtekoa izango da.

Eskatzen den eszedentzia 2 urte artekoa bada, eszedentzia amaitutakoan, langileak lehen zeukan lanpostu berean jarri beharko du berriro ere enpresak. Horretarako dagoen erreserba-klausula ezarri ahal izango du eszedentzian dagoen langilea ordezkatzeko duen langilearen kontratuan.

Eskubide horiek lortu ahal izateko, eszedentzia eskatzeko arrazoiak familiarekin, ikasketekin, lanbide-hobekuntzarekin, osasunarekin edo antzeko beste zerbaitekin zehazkizunak izan behar du.

Seme-alaba edo familiakoa zaintzeko eszedentzia

Langileen Estatutuaren 46.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, langileek gehienez hiru urteko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute norberaren edo adoptatutako seme-alaba bakoitza zaintzeko, nahiz eta behin betiko harrerako moduan edo adopzio helburuetarako zaintzako moduan edo adopzio-aurreko egoeran hartu, umearen jaiotegunetik edo epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik zenbatzen hasita.

Bi urtetik gorakoa izango ez den eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute, halaber, bere kargura dagoen familiakoren bat zaindu behar duten langileek, odol edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailaraino, baldin eta familiakoa, adinagatik, istripuren bat izan duelako edo gaixorik dagoelako edo desgaitasunagatik, bere kabuz baliatu ezin bada, eta ordaindutako jarduerarik betetzen ez badu.

Atal honetan jaso den eszedentzia langileen banakako eskubidea da, gizon zein emakumeena, eta eszedentzia horren iraunaldia zati-tatu ahal izango da. Hala ere, enpresa berean lan egiten duten bi langilek edo gehiagok subjektu sortzaile beragatik eskubide hori sorrarazten badute, enpresaburuak denek aldi berean baliatzeko eskubidea mugatu ahal izango du, enpresaren funtzionamenduaren arloko egiaztatutako arrazoiengatik.

Beste eszedentzia bat hartzeko bidea ematen duen arrazoi berria sortuz gero, eszedentzia berriarekin aurretik baliatzen ari zena amaituko da, baliatzen ari bazen.

Langileen Estatutuaren 46.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, langilea eszedentzia egoeran dagoen aldia antzinatasunerako zenbatuko da, eta langileak lanbide-prestakuntza ikastarora joateko eskubidea izango du, bereziki berriro ere lanera itzuli behar duenean. Ikastaro horietara joatea enpresaburuak eskatuko dio langileari. Lehenengo urtean langileak lanpostua gordeta edukitzeko eskubidea izango du. Epe hori igaro ostean, talde profesional bereko edo kategoria baliokideko lanpostu bat gordeko zaio.

Hala ere, familia ugaria ofizialki aitortua duen langilearen kasuan, lanpostua gordezko epea gehienez 15 hilabetera luzatuko da izaera orokorreko familia ugaria baldin bada, eta gehienez 18 hilabetera, izaera bereziko familia ugaria baldin bada.

Aurreko paragrafoetan seme-alaben eta/edo familiaren zaintzagatiko eszedentziari buruz aurreikusitakoa indarrean dagoen legediari egokituko zaio uneoro; hortaz, aurrerago aldaketaren bat ematen bada, automatikoki aplikatuko da.

17. artikulua. — Laneko jantziak

Hitzarmen honen eraginpeko enpresek haien eginkizunetarako egokiak diren bi lan-janzki eskuratuko dizkiete langileei lanean hasten diren unean eta, hortik aurrera, urtero, eta enpresek exijitu ahal izango dute janzkietan beren izen edo anagrama grabatuta eramatea.

18. artikulua. — Langile berrien sarrerak eta kargugabetzak

Probaldia hitzartu ahal izango da, idazki bidez eginez gero. Probaldia eskala honen arabera izango da:

- 25 langile baino gutxiago duten enpresetan:
 - Teknikari tituludunak: 6 hilabete.
 - Gainerako langileek: 3 hilabete.
- 25 langile baino gehiago dituzten enpresek:
 - Teknikari tituludunak: 6 hilabete.
 - Gainerako langileek: 3 hilabete.
- Praktikaldiko kontratuak:
 - Goi mailako tituludunak: 2 hilabete.
 - Gainerako langileak: hilabete 1.

Epe hori igarotakoan, langileak enpresako plantillakoak izango dira, eta probaldia antzinasunerako zenbatuko zaie.

Enpresan lan egiteari utzi nahi dion langileak zerbitzua utzi baino hamabost egun lehenago ohartarazi beharko du idatziz. Bestela, hori betetzen ez duen egunak likidazio-tik kenduko zaizkio.

19. artikulua. — *Enpresak lekualdatzea*

Lantokia lekualdatzen edo lekualdatu bada, langileen eskubide guztiak zainduko dira, batez ere garraio gastuei, bidaia denborari eta bazkari gastuei dagokiena, eta azken horretarako 8,78 euro/egun emango dira 2018. urtean, hitzarmena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik. 2019. urtean, aipatutako zenbatekoa hitzarmenaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera eguneratu egingo da.

Hitzarmen hau sinatu aurretik lekualdatu eta eskubide honetaz baliatu ez diren langileei erreklamazioa egiten duten unetik bertatik hasiko zaie adierazitako kopurua ordaintzen.

Artikulu hau aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo eztabaidak Hitzarmenaren Batzorde Misto Interpretatzaileari jakinarazi beharko zaizkio. Batzorde horretako kideek gehiengo osoz hartutako erabakiak lotesleak izango dira alde guztientzat.

20. artikulua. — *Mediku azterketa*

Enpresek osasun-azterketak egingo dizkiete, urtean behin, bertako langile guztiei.

21. artikulua. — *Gaixotasun ordainketa*

Enpresek itundutako baldintza onuragarriagoak alde batera utzi gabe, Gizarte Segurantzak behar bezala egiaztatutako laneko gaixotasuna, gaixotasun arrunta, istripua lanekoa izan ala ez, edo amatasunagatiko arriskua izanez gero, enpresak nahitaezko prestazioak osatuko ditu lansari osoa egin arte, aparteko haborokinak barne, langilea Aldi baterako Ezintasuneko egoeran dagoen bitartean.

Enpresak osagarria ordain diezaion, aldi baterako ezintasuneko egoeran dagoen langileak prestazioa jasotzeko indarreko lege baldintzak bete behar zituen, egoera horretan egon aurretik. Nolanahi ere, prestazioa hemezortzi hilabetez jasoko da gehienez, baldin eta Gizarte Segurantzaren edo enpresaburuaren kargurako estaldura edo enpresaburuaren kargurako egun kopurua aldatzen ez bada.

22. artikulua. — *Iraunkortasunaren saria*

Aurreko hitzarmenaren idazketari eusten zaio baina bakar-bakarrik mutualista diren eta 1967ko urtarrilaren 1a baino lehenago kotizatu duten langileentzat.

Enpresan lanean 20 urte baino gehiago daraman eta mutualista diren eta 1967ko urtarrilaren 1a baino lehenago kotizatu duten langileak Gizarte Segurantzak onartutako erretiro kausagatik enpresa erabat uzten badu, enpresak iraupenagatiko saria ordain diezaion eskubidea du, hurrengo paragrafoan zehaztutako zenbatekoen arabera: enpresa uzten duenean hiru hilabeteko soldata, eta zenbateko osoa ordaintzeko falta dena osatu arte, hilabeteko soldata bat hilean.

- 60 urte betetzean: 15 hilabete.
- 61 urte betetzean: 12 hilabete.
- 62 urte betetzean: 9 hilabete.
- 63 urte betetzean: 7 hilabete.
- 64 urte betetzean: 4 hilabete.
- 65 urte betetzean: 3 hilabete.

Alde sinatzaileek ulertzen dute, sari hori langilea mutualista izateari lotuta egonda, egun kasurik onenean enpresan 64 edo 65 urterekin erretiratzeko diren langileei aplikatuko zaiela. Nolanahi ere, 60-63 urteko tarteei eusten zaie, baldintza hori betetzen den salbuespeneko kasurik balego.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean erretiroaren adina legez aldatuko balitz, artikulua indargabetuta geldituko litzateke, eta batzorde mistoa bildu beharko litzateke, lege xedapen berrietara egokitzeko.

64 urteko erretiro berezia aldi berean langile berri bat kontratatuz.

Modalitate hau urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duenak, 4. xedapen iragankorrean eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean behar bezala erregistratutako hitzarmen kolektiboetan xedatutakoaren arabera aplikatuko da.

Hala, 64 urte beteta dituzten langileek, hitzarmen horietan behar bezala izen emanda badaude eta legeak erretiro-prestazioetarako eskubidea edukitzeko eskatzen dituen gainerako baldintzak betetzen badituzte, lege xedatutakoaren arabera eskatu ahaliko dute, haietan jasotako prestazioetarako eskubidea izanda, eta enpresak lege eskatutako baldintzak bete beharko dituzte, eta batez ere inguruabarrak bildu eta legeko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituen beste langile bat kontratatzekoa. Eskubide hori baliatzea bateraezina da lehen paragrafoan aipatzen den haborokinarekin, eta Hitzarmenaren amaieran indarrak gabe geratuko da automatikoki.

23. artikulua. — Berme sindikalak

A) Enpresa-batzordeko kide bakoitzak 30 ordu izango ditu hilean, beren karguekin erlazionatutako gaietarako. Ordu horiek denak batera kontatuko dira ordezkari batek, besteekin aldez aurretik ados jarrita, guztiei dagozkien ordu bezala baliatu nahi duela eskatuz gero; metaketa hiruhileko naturaletan egingo da.

B) Enpresa Batzordeak eta Ordezkariak iragarki-taula bat eta lokal bat izango dituzte Enpresa barruan bilerak egiteko.

C) Krisi espedienteen kasuan, aldaera guztietan ere, enpresak bertako sindikatu ordezkariari krisiaren berri eman beharko dio, espedienteak burutu aurretik.

D) *Batzarrak*: Langileek enpresan bilerak egiteko eskubidea izango dute, lanordue-tatik kanpo. Enpresa Batzordeak edo Langileen Delegatuek deitu eta zuzenduko dituzte bilera horiek, baita bileretako ordena bermatu ere. Horretaz gain, bileren deialdia Enpresa Zuzendaritzari jakinaraziko diote 24 orduko aurrerapenarekin, eta beharrezko ikusten dituzten neurriak adostu beharko dituzte bi alderdien artean.

E) *Eszedentzia sindikalak*: Gutxienez probintzia mailakoa den kargu sindikalen bat betetzeko eszedentzia eskatzen duten langileek ez dute eszedentzia eskatzeko enpresaren gutxieneko antzinatasuna bete beharrik. Eszedentzia horiek nahitaezkozat hartuko dira langileak sindikatuko postuan dirauen bitartean, eta nahitaezko eszedentzietan dagozkien xedapen orokorren baitan arautuko dira.

24. artikulua. — Lanbide-sailkapena

Lanbide-sailkapena Soldata Taulan (I. eranskina) jasotzen den moduan ezartzen da, enpresaren jardueraren arabera eta langileen berariazko egitekoen eta lan-parekatzearen arabera, ordainsariak Soldata Taulak zehazten direnak izango dira.

25. artikulua. — Euskara sustatzea

Enpresa Zuzendaritzako ohar eta jakinarazpen guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.

26. artikulua. — Aniztasun funtzionala duten pertsonak

Maiatzaren 11ko 1.451/1983 Errege Dekretuarekin bat etorritik, horren bidez, 13/1982 Legean aurreikusitakoa betez, aniztasun funtzionala duten pertsonen enplegu hautatua eta enplegua sustatzeko neurriak arautzen dira, sinatzaileek adosten dute hitzarmen honen eraginpeko berrogeita hamar langile baino gehiagoko enpresetan, Enpresa Batzordearekin edo langileen ordezkariarekin adostuta, izendatuko pertsonentzako lanpostu egokien zerrenda egingo da.

27. artikulua. — Laneko segurtasuna eta osasuna

Lehenengoa: Enpresek eta bertako langileek, Laneko Segurtasunari eta Osasunari dagokienez, Hitzarmen honetako xedapenetan eta une bakoitzean indarrean dagoen legegian ezarritako eskubideak eta batzuek besteekiko dituzten erantzukizunak onartuko dituzte.

Hortaz, eta dauden arrisku egoeren arabera, dagokion prebentzio jarduera planifikatuko dute, adierazitako arriskuak kentzeko, kontrolatzeko edo gutxitzeko.

Prebentzio Delegatuak langileen ordezkariak aukeratuko dituzte haien artean, eta Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 37. artikuluan ezartzen diren bermeak izango dituzte.

Dituzten eginkizunak betetzeko prebentzioari buruz behar duten prestakuntza eman beharko die enpresariak Prebentzioko Ordezkariei, eta horretarako prestakuntza ikastaroak egitera joateko behar dituzten orduak eta baimenak emango dizkie, 1997 abenduaren 11ko Lanbide Arteko Akordioari jarraiki (EAEko Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzkoa).

Bigarrena: Lanpostuetako lan arriskuak aztertzerakoan, aipatutako azterketan enpresek kontuan izan beharko dituzte prozeduren berariazko arriskuak, edo haurdun daudenen edo erditu berriak direnen langileentzat edo umekiaren osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen lan baldintzak.

Era berean, arriskutik kanpo dauden lanpostuak zerrendatuko dituzte aipatutako azterketan, langileen ordezkariari galdetu ondoren.

28. artikulua. — Prestakuntza-kontratuak eta erretiro partziala

Ikaskuntza

Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratua lege xedatutakoaren arabera egingo da. 2018an haren ordainsaria prestakuntzako langilearen lan-jarduerako ehuneko zehatza hileko 941,11 euroko soldatari aplikatuz kalkulatu da. 2019an arestiko kopurua hitzarmenaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera eguneratu da, %1,75ean, 2018ko KPIaren bermearekin bera handiago balitz.

Praktikaldiko kontratua

Unean uneko indarreko legeen arabera arautuko dira, eta haien soldata dagokion Hitzarmen-soldataren gaineko ehunekoa (%75 edo %90) aplikatzearen emaitza izango da.

Txanda Kontratua eta Erretiro Partziala

Legez xedatutakoaren arabera jokatu da, eta/edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalan behar bezala erregistratutako hitzarmen kolektiboetan txanda-kontratuari eta erretiro partzialari buruz xedatutakoaren arabera.

29. artikulua. — Bularra emateko, legezko zaintzagatiko, amatasunagatiko eta aitasunagatiko baimena

Langileen Estatutuaren 4. idatz-zatiaren 37. artikuluan ezarritako edoskitzeagatiko baimena lanaldiaren hasieran edo amaieran hartu ahal izango da. Baimen hori ordu-

bete lanera ez agertzean datza. Emakume langileak lizentzia hori nola hartu aukeratu ahal izango du, hau da, gorago aipatutako moduan edo denbora metatu eta amatasunagatik lizentziari gehitu, eta azken hau amai- tutakoan baliatu. Denbora hori haurrak bederatzi hilabete betetzeko falta diren lanegun bakoitzeko ordubeteren arabera zenbaturako da.

Lege-testu bereko 6. eta 7. idatz-zatiaren 37. artikulua ezarritakoari jarraituz, legezko zaintza dela eta, hamabi urte baino gutxiagoko haur bat edo desgaitasuna duen pertsona bat (ordaindutako jarduerarik betetzen ez badu) zaindu behar duen langileak lanaldi-murrizketarako eskubidea izango du. Gutxienezko murrizketa lanaldiaren zortzi-rena izango da, eta gehienekoa, berriz, lanaldiaren erdia, eta soldata proportzionalki gutxituko da, murrizketaren arabera.

Odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaide bat zaindu behar duen langileak eskubide bera izango du, baldin eta ahaidea adinagatik, istripuren bat izan duelako edo gaixorik dagoelako, bere kabuz moldatu ezin bada, eta ordaindutako jarduerarik betetzen ez badu.

Gurasoek, adoptatzaileek, adopzio-helburuak dituzten gordetzaileek edo hartzaile iraunkorrek lanaldia murrizteko eskubidea izango dute, soldata proportzionalki murriztuta. Horiek horrela, lanaldia gutxienez erdira murriztu dezakete kargura duten haurra ospitalean eta tratamendu jarraituan izan bitartean, baldin eta aipatutako adingabeak minbizia (tumor gaiztoak, melanoma edo kartzinoma) edo beste gaixotasun larriren bat badu eta, horren ondorioz, ospitalean egon behar badu denbora luzez eta zuzeneko nahiz etenik gabeko zaintzen beharrek. Horrelakoetan, osasun-zerbitzu publikoaren edo kasuan kasuko autonomia erkidegoko osasun-administrazioaren organoak egindako txostena aurkeztu beharko dute langileek, eta horretarako baimena izango dute adingabeak hamazortzi urte bete arte.

Langileen Estatutuaren 6. idatz-zatiaren 37. artikuluan bildutako lanaldi-murriztea langileen (gizona zein emakumea) eskubide indibiduala da. Nolanahi ere, enpresa bereko bi langilek edo gehiagok eskubide hau hartzeko aukera badute arrazoi berarengatik, enpresaren funtzionamendurako egiaztatutako arrazoiengatik, enpresaburuak mugatu ahal izango du bi langileek aldi berean hartzea.

Langileen Estatutuaren 4. eta 6. idatz-zatien aurreikusten diren ordutegia zehaztea eta edoskitzeagatik baimena eta lanaldiaren laburtzea baliatzeko orduak finkatzea bere lanaldi arruntaren barnean, langileari dagokio. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, langileak hamabost eguneko aurrerapenaz jakinaraziko dio enpresaburuari zer egunetan hasi eta bukatuko den bularra ematearen edo lanaldi murriztuaren baimena.

Ordutegia zehazteko eta Langileen Estatutuko 37. artikuluko 4., 5. eta 6. zerbaki- takerako baimen-denboraldiak zehazteko orduan enpresaburuak eta langilea ados jartzen ez badira, lan arloko jurisdikzioak ebaztuko du arazoa, lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legeko 139. artikuluan xedatutako prozeduraren bitartez.

Artikulu honetan aurreikusitakoa indarrean dagoen legediari egokitu zaito uneoro; hortaz, aurrerago aldatetaren bat ematen bada, automatikoki aplikatuko da.

Kontratua amatasun eta aitatasunagatik eteteari dagokionez, enpresek Langileen Estatutuaren 48. artikuluan eta lotutako araudian une bakoitzean legez xedatutakoa bete- teko dute.

30. artikulua. — *Hitzarmen kolektiboa ez ezartzea*

Legez ezarritako moduan jokatu da eta dagokion 15 eguneko kontsultaldia hasiko da. Epe berean enpresek hitzarmenaren batzorde misto paritarioari jakinarazi beharko diote kontsultaldia hasi dela, eta langileen legezko ordezkari bidalitako idazkiaren kopia erantsiko dute.

Kontsultaldia amaiturik adostasunik ez badago, alderdietako edozeinek hitzarmenaren batzorde paritarioaren esku jarri ahal izango du desadostasuna, bost eguneko epean; batzordeak gehienez ere zazpi egun izango ditu erabakia hartzeko, desadosta- suna jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita.

Batzorde paritarioan akordiorik ez badago, aldeetako edozeinek jo ahal izango du, desadostasunak ebazteko xedez eta bost eguneko epean, Laneko gatazkak ebazteko borondatezko prozedurei buruzko 2000ko otsailaren 16ko Konfederazio arteko Akordioa (PRECO) (apirilaren 4ko EHAA). Berariaz ezartzen da arbitraje-prozedura soilik aplikatuko dela baldin eta alde bakoitzaren gehiengoak erabakitzen badu hari men egingo diotela.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute ORPRICCEra eta Hitzarmen Kolektiboetarako Aholku Batzorde Nazionalera ez jotzeko, hitzarmen honen alderdi negoziatzaile bien gehiengoek berariaz adostuta ez bada.

VI. KAPITULUA

LAN HUTSEGITE ETA ZIGORREN ARAUDIA

31. artikulua

Testu honetan ezartzen diren hutsegiteen eta zigorren mailaren arabera, langileek egiten dituzten ekintza edo ez-egite zigorgarriak zigortu ahal izango ditu enpresak.

Langileak egiten duen hutsegite oro arintzat, larritzat edo oso larritzat joko da garrantziren arabera.

1. *Hutsegite arinak*

Honako hauek izango dira hutsegite arinak:

- 1.1. Lanera bertaratzean puntualtasun hutsegite batetik hirura bitarte, 30 minututik beherako atzerapenarekin hilabete batean, salbu eta atzerapen horiek enpresaren produkzio-prozesuari kalte larriak eragiten badizkiote. Kasu horretan hutsegite larritzat hartuko da.
